*Sarritan pentsau izan dot zer sentiduko eban, Carmenen moduan, beste edozein andrak, halako sasoietan ama izatean. Zorokeria horren erdian, zelako ikara, desesperazinoa eta itzaltasuna eukiko ebezan Bermeoko kostaldean bizi ebezan une gogor hareetan. Eta oraindino zer egoan etortzeko ez ekien...*

*Nire pentsamentu horreek ez dira kasualidadea. Nire aita be 1937ko martxoaren 4an jaio zan. Nik ez neban amuma ezagutu, ni jaio baino urte asko lehenago hil zan, berrogeta hamasei urte baino ez euki arren, atsotxu zahar baten itxuragaz, bizitzak emondako une gogor guztiak lepo ganean eroazala.*

*Aitak askotan kontatzen eustan ze gatxa izan zan hareen bizitza umeak ziranean, are gehiago berak sei urte eukazala, aita galdu ostean, ia ahora zer eroan ez eukiela, lanean hasi behar izan ebanean. Bai, ez nago errealitatea exajeretan; hori da gerrak ixten dauan etorkizun eza, eskola itxi eta lanean hasi behar izan eban umearen etorkizun eza, gerraosteak ekarritako gosea eta miseriak bere familia ez hondatzeko, bere haurtzaroa galdu behar izan eban umearen etorkizun eza. Baina hori beste kontu bat da.*

*Nire aldetik ez dot sekula ahaztuko bere ahotik ikasitakoa, ezta nire amuma be, ausardiaz betetako andra, bere sei seme-alabak berak bakarrik aurrera atera ebazana. Hareei esker, hemen gagoz hurrengo belaunaldiak, nire amumaren "bizitza gogorra da" esaldi horri buelta emoteko asmo biziagaz, guretzat hain gogorra ez dan arren, ezin dogulako ahaztu, gaur egun be, munduko beste leku askotan, gizon, andra eta ume asko dagozala gerrak dakarzen ikara, samintasuna eta etorkizun eza oso gertutik bizitzen.*

EROSKI
city

Jai Zoriontsuak Dan-Danori

ETXEZ ETXEKO
ZERBITZUA
Reparto a domicilio

Arressi kalea, 21
94 618 64 17
48370 Bermeo (Bizkaia)

MURGUA
AUTO TALLERES

MULTIMARKA TAILERRA GARA
SOMOS UN TALLER MULTIMARCA
BANATZAILE OFIZIALA / DISTRIBUIDOR OFICIAL DE
STIHL
MOTUL

REPARACIONES MECÁNICAS | REVISIÓN Y MANTENIMIENTO INTEGRAL
KONPONKETA MEKANIKOAK | AZTERKETA ETA MANTENTZE-LAN OSOAK

LOREZAINTZAKO MAKINERIAREN SALMENTA ETA KONPONKETA
VENTA Y REPARACION DE MAQUINARIA DE JARDINERIA

Pol. Ind. Landabaso, B - Nº 1E
Tel. 94 687 60 21 · Móv. 646 84 84 18 · 48370 BERMEO
info@talleresmurgua.com · https://talleresmurgua.com


Bengoetxe
Erretegia
Jai Zoriontsuak igaro!!
Artike Auzoa, 27 Bermeo
Tel. 94 688 16 76 /94 618 67 67
www.restaurantebengoetxe.com
info@restaurantebengoetxe.com


SERRATS
·1890·
Arte en conserva
Hegaluze kontserbak, Kantauriko "Erreserba" Antxoak… eta bestelako itsas gutiziak
Pasatu gure dendatik, irailaren 11tik 15era (biak barne) eta goza ezazu:
10% deskontu
… iragarki hau ekarriz gero.
SERRATS DENDA
(Landabaso industrialdea, 6zkia, gasolindegi ondoan)
Astelehenetik ostiralera: 10:00-14:00 eta 15:30-19:00 (jaiegunetan izan ezik)
JAI ZORIONTSUAK!

IZARZUGAZA
1906TIK

# IZARZUGAZA KRISPIN

## Harategiak - Delikatessen

*Izarzugazaren bezeroentzat bereziki hazitako baserriko txahalak.*
*Geuk egindako gourmet-a. Jatetxeak, egoitzak eta txokoak zerbitzatzen ditugu.*





*Izarzugazatik mezu bat gure bezeroei. Hori guztia ez zatekeen posible izango zuen eguneroko laguntza gabe, berotasuna eta maitasuna transmitituz, guregan konfiantza izateagatik, bihotzez.*

*2008tik, kalitatearen UNE 175001 "Q" Kalitate-Arauarekin ziurtatutako 3 establezimenduak.*
*2008ko Enpresa Solidarioaren Saria Busturialdean.*
*Euskadiko "Merkataritza Berrikuntza Saria 2011"*

***Ondo pasa jaiak, disfrutatu, ederto jan ta lasai eran.***

BERMEON: Zubiaur tar kepa, 22 | Nardiz tar jon, 15 | Tel. 946 02 83 17
BAKION: Txontxoenasolo, 1 | Tel. 94 619 40 08
MUNDAKAN: Goiko kalea, 51 | Tel. 946 87 67 95
INTERNETEN: www.izarzugaza.com





estudio
MDK eus
arkitektura









Goiko kalea 48 behea C MUNDAKA | 94-602 99 21 | estudiomdk@mdk.eus

mdk.eus


Aprolan 21
Altuerako lan profesionalak
94 640 06 74
info@aprolan21.eus
Polígono Lamiaranpe,
Pabellón B 21, 48360
Mundaka - Bizkaia
Jarrai gaitzazu sare sozialetan!
@aprolan21
Web gunea: www.aprolan21.eus


REALE
SEGUROS
ASEGUROAK
Gorka Asteinza Allika
Iker Duarte Etxebarria
Lope Díaz de Haro, 6
Bermeo
Tel. 946 884 055
ar.bermeo@reale.es
BENETAKO BIZITZARAKO
ASEGUROAK
Gora Bermeo!!!
Ondo ibili
eta Jai Zoriontsuak!!

# ITZULIAK

ITZIAR REKALDE LUZARRAGA

Hiru hilabeterako etorri naiz bueltan Bermeora. Aspaldi joan nintzen Bermeotik lanera. Gero nire familia osotu nuenean, gurasoengana sarri etortzen ginen. Zer esanik ez, lagunekin ospakizun bazkari eta afariak egitera; ahal izanez gero, ez nituen galtzen. Bermeotar jatorra naiz eta halako parrandetarako beti nago prest. Urteak pasa eta guraso edadetuak guregana ere etorri ziren. Herrira etortzeko aitzakiarik barik, gutxitu ziren egiten nituen bisitak, asteburu bat edo beste bakarrik lagunekin egoteko, edo, azken boladan, aspaldiko ezagunen hiletetara.

Kansatik paseatzea gustukoa dut. Horrela deitzen genion, nire ume-garaian, kaiaren bukaeran, ontziolaren ondoan konpainia ezagun baten gasolina-biltegi bat zegoelako. Han jolasten genuen, ontziolaren aurrean geratzen zen esplanadan.  Egurrezko ohol zatiak erabiliz, egur hondarrak zirenak, kolunpioak inprobisatzen genituen edo oreka-ariketak egiten genituen *goitxik hala behera (goitxikalabera)* jolasean, kaia eta trenbidea bereizten zituen zementuzko ertzean. Niri beti tokatzen zitzaidan azpian makurtuta geratzea, ez nintzelako batere trebea beste nesken gainetik saltoka jartzen. Eremu hura gure lehen lurralde autonomoa izan zen, gure ama eta inguruko emakumeen babes eta zaintzatik kanpo.

Aurretik, eskolatik bakarkako joan-etorriak, gure lagunak bizi ziren kaleetatik ibili, gure amek eta amumek bidaltzen zizkiguten etxeko errekadurik txikienak egitera joan, eta, batez ere, Goiko Plazan jolastu. Horiek ziren gure lehen ibilera autonomoak. Lehen aipatutako kai aldeko askatasunera iritsi baino lehen, Goiko Plaza izan zen nire tokirik gogokoenetako bat. Han, udaletxean, gure aitak egiten zuen lan goizetan, eta ni bisitatzera joaten nintzen. Ez etxean baino harago ikusi nahi nuelako, baizik eta aitak izeko Carmenekin lan egiten zuelako. Carmen ez zen nire benetako izekoa, baina nik hala deitzen nion, musu baten truke, diru pixka bat ematen zidalako beti. Musu-truke komertzial horri



esker, Simonak arkupeetako zutabeetako batean zeukan gozoki-postuan txufa-kukurutxo bat edo hiru erregaliz erosi ahal nuen. Arkupe haietan, harrizko eskaileretan, kromo, kanika eta tabetan ere jolasten ginen. Goiko Plaza, 7 eta 10 urte bitarteko aldian, Erremedio kaleko nire etxearen eta ikastetxearen arteko oasia izan zen. Ikastetxera iritsi baino lehen, Sanjuanportale zeharkatu behar genuen, santuaren arrastotik pasatako eskua musukatu ostean. Keinu hori ez zen niretzat ohitura arrunta. Nire amuma Jacobak kontatzen zidan, eskua aztarna dagoen harritik pasatu barik eta bedeinkazioa hartu barik iluntzean edo ordu txikietan San Juan atea pasatuz gero, egoera beldurgarri eta arrisku latzak jasango nituela.

Amuma Jacobak kontatu zidanez, osaba Sabinok, kanposantuaren eta Arene auzoaren artean zeukan baratzetik udako gau batean bueltan zetorrela –berandu egin zitzaiolako– kanposantutik pasatzean, marmar eta arnasa batzuk sentitu zituen kolkoan berari segika, eta, Sanjuanportalera iritsi baino lehen, gero eta ozenago ari ziren irrintziak, eta indar batek lurrera bota zuen, astindu eta jipoitu zuten, eta baratzetik ekarritako guztia lurrera erori zitzaion. Horma arrastaka zeharkatu eta aztarnaren harria ukituz aitaren egin zuenean, dena isilpean geratu zen. Ez zen inolako zaratarik entzuten eta, gainera, lurrera eroritako barazki

guztiak zeuzkan berriz ere saskian. Etxera heldu zenean, gorputz osoa beltzunez eta orbanez beteta zeukan.

Beste behin, amumak berari ere gertatu zitzaiona kontatu zidan. Gau batean, ohean lotan zegoela, esnatu egin zela esan zidan, ohearen oinetan eseritako gorputz baten pisua sentitu zuelako. Makurtu zenean, bere ama zendua ikusi zuen, keinu batez atzetik segitzeko esan ziona, eta, bat-batean, Sanjuanportale zeharkatzen zegoen, eta, beste aldean, otoitz egiten, suzko sugar pila bat (begiaren arimak) ikusi zituen. Amumak esan zidan Baztarre eta Torronterotik eraman zutela airean, eta Santa Eufemia elizaren aurrera iritsi zenean, jendez beterik zegoela, Lamera bukaeraraino, denak beltzez jantzita, mantilekin aurpegiak estalita eta, prozesioetan bezala, kandelak piztuta eskuetan. Hori ikustean, aitaren egin zuen amumak, eta, bat-batean, bere gelan zegoen berriro; gainera, bere ohea eginda aurkitu zuen, kamisoia tolestuta eta kandela bat mahaitxoan piztuta, Damasa nire birramumaren eta bere amaren argazkiaren ondoan. Halako istorioak kontatzeko eskatzen nion biok bakarrik egoten ginenean eta berak gertakari arruntak balira bezala kontatzen zizkidan jatekoa prestatzen zuen bitartean.

Damasa birramumak oihal-denda bat zuen Erremedio kalean, aldaparen kantoian, gero gure amuma Jacobak heredatu zuena. Alkandorak ere josten zituzten arrantzaleentzat eta, batez ere, hil-oihalak. Nik ez nuen denda hura ezagutu, baina bai gero, *ultramarinos* zeritzon janariena bihurtu zenean. Gerora, amumak bere etxeko kutxa batean gordetako hil-oihalak saltzen zituen. Herriko etxe batean zendu bat zegoenean, bere familiako baten bat agertzen zen erostera baina beste batzuetan, hil-kanpaiak entzuten zirenean, amumak hildakoaren etxera bidaltzen ninduen, buruko horietako bat eraman nezan. Garai hartan, dolua iraun bitartean, zenduaren etxeko ataria gortina beltzez jantzita eta sarrerako atea zabalik egoten ziren. Ni sartu eta zuzenean joaten nintzen emakumeen ahotsak entzuten nituen tokira, emakumeak baitziren gorpua janzten eta hilkutxan sartzeko prestatzen zutenak. Gero dolu-gela izango zen lekura joaten nintzen, nolako gailetak eta ardo gozoa jarriko

zituzten ikustera. Gaileta bereziak baziren, biharamunean lagunak eta biok eskolatik irten eta bertara joaten ginen, etxera joan baino lehen. Honako hau izaten zen jarraitzen genuen errituala: dolu-gelan sartzen ginen, hilkutxara hurbiltzen ginen, hildakoari errespetuz begiratzen genion, minutu bat edo bi geratzen ginen han, aitaren egiten genuen, burua makurtuz inguruan eserita zeuden senideei agurtu eta, gero, mahaitxora joaten ginen gailetak jatera; batez ere zilarrezko paperean bildutakoak eta txokolatezkoak aukeratzen genituen. Kopa bat ardo gozo ere edaten genuen. Aldiro gaileten kalitatearen araberako rankingak egiten genituen.

Une haiek gogora ekartzean, konturatu naiz emakumeak zirela jaioberriei ongi etorria eta hildakoei agurra ematen zietenak. Emakumeak baitziren bizitzaren eta heriotzaren bizi-zikloaren protagonistak. Eta heriotzatik haratagoko errritualen protagonistak ere bai. Kanposantura joatea besterik ez dago ikusteko emakumeak (gizonen bat edo beste ere bai) hilobiak atontzen eta beren ezagun zenduak bisitatzen, geure baitan ahalik eta denbora gehien iraun dezaten, heriotzarik txarrena, kultura askoren arabera, ahanzturarena delako.

Garai hartan, nik orain dudan adina izango zuen amuma Jacobak gauza asko erakutsi zizkidan: Arimaren begia agertuz gero, hil aurretik egin gabe utzi zuten promesaren bat betetzen laguntzeko balio duen *zapiaren erritua* egiten. Parte Txarreko eta Parte Oneko arimak bereizteko trukutxoa. Belar-enplastuak prestatzen, hematomak, zauri infektatuak eta ahoko flemoiak sendatzeko. *Zantirituren* bidez, olio beroarekin bihurdurak sendatzen zituen bitartean, berarekin batera, “Zantiritu, zaina urtu, zaina bere lekuen sartu” esaten. Bakailao eta patatak saltsa berdean prestatzen. *Filomenita* eta *Maria erreduraren* ipuin ilunak. Baina, batez ere, heriotza geure egunerokotasunaren parte dela eta, beraz, bizitza baloratzen irakatsi zidan. Berak ez zekien ezer fisika kuantikoaz, baina errealitate-geruza asko daudela aldi berean erakutsi zidan.

Aurton, hirurogeita hamar urte bete ditut eta hemen nago berriro, kalerik kale nire antzineko oroitzapenekin, nondik natorren eta nor naizen ez ahazteko.


Akatz
ERAIKUNTZAK
CONSTRUCCIONES
OBRA BARRIA / OBRA NUEVA
BARRIKUNTZAK / REFORMAS
IGELTSEROTZA / ALBAÑILERÍA
T. 607 834 796 // 94 618 75 76 · ARTIKE BIDEA, 2 · 48370 BERMEO · BIZKAIA


ALAKRANA
Jai Zoriontsuak!!
BTEM
Euskadiko elikagai berrikuntzaren sariak
Premios a la innovación alimentaria en Euskadi
INNOVACIÓN TECNOLÓGICA DE PRODUCTO ALAKRANA

## 092 Bermeo segurua

Udaltzaingoa 24 orduz urte osoan bermeotarron zerbitzura

UDALTZAINGOA

Tel. 94 617 91 11
udaltzaingoa@bermeo.eus
Fax: 94 688 21 97

BERMEOKO UDALA




| SASTAR BATZE zerbitzua | | | |
|---|---|---|---|
| Irailaren 7tik 8ra | Irailaren 9an | Irailaren 10etik 16ra | Irailaren 17tik arurrera |
| 14:00etatik aurrera | EZ DAGO ZERBITZURIK | 14:00etatik aurrera | 19:00etatik aurrera |

# OLAETA AROZTEGIA

JOSEBA OLAETA

- sukalde eta bainuko altzariak
- altzariak neurrira
- markoak eta leihoak
- ate trinkoak, blindatuak eta barrukoak
- aukera zabala
- parketak, horma-armairuak
- etxebizitza eta lokalen barrikuntza lanak

Tailerra:
Landabaso industrialdea, 8.1
Bermeo - Tl.615 779 663 • 94 618 64 75

www.carpinteriaolaeta.com
carpinteriaolaeta@hotmail.com

Zoru laminatuetan, biniloetan, ateetan ....espezialistak.
Zatos gure eraskusketara zure etxea berritzen duten produktu guztiak ikustera

Bekoibarra 23. Gernika.
T: 946 250 976
www.maderamoreno.es









Enpresa eta Autonomoentzako Aholkularitza, Kontabilitatea, Zergak, Lan Kudeaketa, Errenta Aitorpena eta laster, Atzerritartasun tramiteak (extranjería)

Dolariaga,19 baixua -Tel: 944650543
email: saioa.b@mbabokatuak.com

# GAZTELUGATXEKO SAN JUAN GEURIA

ANDONI ANASAGASTI GOIKOLEA



Bermeotar batentzat, Gaztelugatxeko San Juanek beti izan du osagai oso afektiboa; izan ere, santu horren ospakizunekin lotzen dugu, santuaren jaiegunean Bermeotik bai ermitara bai aurreko zelaietara beti egin izan ditugun ibilaldiekin. Zelai horietan, erromeria, jatekoa eta ospakizunak izaten ziren jaiegun horretan. Beste ekintza batzuk ere gogoratzen ditugu, besteak beste, itsasontzi berriren baten «aprobada» zegoenean eta itsasontzian bertan joateko eta zeremonian parte hartzeko aukera genuenean, baita San Juan inguruan patroiak ontziari ematen zizkion hiru birak, harrapaketetan zortea izateko eskatzen zuen bitartean, ontzia Bermeora itzultzean zein Afrikara edo urruneko lekuetara arrantzatzera joan.

Gertakari guztiak ez ziren alaiak eta dibertigarriak; izan ere, gogoratzen dugu, era berean, 1978ko urrian arimagalduko batzuek ermita txiki-txiki eginda utzi zutenean eta, ondoren, sua eman eta hauts eginda utzi zutenean. Horren ondorioz, baina, bermeotarren kasta agerian geratu zen: San Juan Berreraikitzearen aldeko Batzordea sortu zen, santutegia berreraikitzeko. Lanak 1980ko ekainaren 24an amaitu ziren, eta, gaur egun, egoera horretaz gozatu dezakegu.

Kontu asko ekar ditzakegu gogora, baina Gaztelugatxeko San Juanez gehien ikertu eta idatzi duen bermeotarretako bat Anton Erkoreka izan da, eta interesgarria da bere idatzien berri izatea, San Juanez gehiago jakiteko.

2020an, telesail ezagun bat, «Game of Thrones» («Juego de Tronos») delakoa, ingurune enblematiko horretan grabatu zen, eta, kapitulu batean, «Dragonstone» («Roca Dragón») izenez identifikatu zen Gaztelugatxeko San Juan, eta pertsona ugariren arreta erakarri zuen.

Pasadizo hori kontuan hartzekoa da, badakigu-eta uhartea bazegoela bertan duela denbora asko eta pasarte historiko aipagarri asko izan dituela, baina, egungo ukitu horren ondorioz, jende gehiagok ezagutzen du ingurunea, eta, nahiz eta interpretazio moderno horien kontrakoak egon, gure ikuspuntutik ez dago soberan; guztion gustukoa izatea gauza nekea da.

San Juanen aberastasunen artean, begi hutsez ikusten ez dugun beste kontu bat ere badago, 12 metrora urperatuta baitago: leku horretan tronuratu zuten Begoñako Ama Birjina. 1963an, CEVASeko (Bizkaiko Urpeko Jardueren Urpekarien Zentroa) urpekari batzuek, Juan Marra taldeburu zela, Begoñako Ama Birjinaren tronuratzea antolatu zuten; ordura arte sekula ez zen horrelakorik egin.  Baina urpeko irudi bat denez, kasu honetan ere ez da ikusten.



Tronuratutako Begoñako Ama Birjinaren irudia

Hori dela eta, 1969an, monolito bat eraiki zen Bermeo eta Bakio arteko errepide zaharrean; bertan, itsaspeko irudia ekarri zuten gogora eta irudi hura itsasoan hil ziren pertsonen oroigarri zela, batik bat 1912ko abuztuaren 12ko galernan hil ziren arrantzaleen eta beren kirolik gogokoena egiten hil ziren urpekarien oroigarri.



Bermeo - Bakio arteko errepide zaharrean dagoan monolitoan urtero egiten dan lore-eskaintza

Tronuratutako ama birjina itsaspeko ingurune horretatik kanpora ere aitortua izan zedin, 25. urteurrenean Leonardo Lucarini eskultoreari ama birjinaren erreplika bat egiteko eskatu zioten, Bermeoko Aita Frantziskotarren Parrokiako kaperan ikusgai jartzeko.

Ordutik, urtero, zeremonia xume baten bidez ekarri da gogora: ibilaldi bat itsasotik eta ekitaldi bat lurretik, Aitxe Adrian frantziskotarrak zuzendutako zeremonia. 2019an, Aitxe Adrian omendu zuten, urte horietan guztietan lan hori egiteagatik.



San Frantzisko elizan dagoen tronuratutako Begoñako Ama Birjinaren erreplika

Aurten, tronuratzearen 61. urteurrena ospatzen da; ekitaldian, Hitzaren otoitz izeneko elizkizun baten bidez omenduko da monolitoan. Ekitaldian bertan eta itsasoan, Bermeoko portutik itsasontzian helduko diren urpekarien eskutik, lore-eskaintza bat egingo da; horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiari eskatu dizkiote baimenak, ekologikoki babestuta dagoen ingurune bat baita.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Bermeoko Udalari, urtero jai-liburuan urtean behin ospatzen dugun ekitaldi hau gogora ekartzeagatik. Ospakizunean Kankinkabara txistu-taldea izaten da giroa alaitzen eta ekitaldiaren berri dutenek parte hartzen dute.

## Bibliografia


- Bermeoko artxibo historikoa
- Manu Muñoa Bermeoko jaietako liburuak
- San Juan de Gaztelugatz Anton Erkoreka Ekain Editor Argitaratzailea1/01/2018 ISBN 10 8493162
- Asier Romero Andonegi  www.Itsosupekondarea.es


181 VHM
LANDABASO tailerrak
Landabaso industrialdea, z/g - Bermeo (Bizkaia) - Tel. 94 688 29 71 - landabaso@fordlandabaso.com - www.tallereslandabaso.com


%100NATURALA
URANGA
OKINDEGIA
Bizkaiko Jaurerria 5
Askatasun Bidea 31

BdB URRESTI
Eraikuntzan espezializatutako denda




iRASTORZA diseño
Cocinas y Baños • Armarios a medida
Dormitorios • Reformas completas
Diseño personalizado




Notaría Hossegor


Latroupe-La Granja

iRASTORZA carpintería
Fabricación propia • Amplia gama de acabados
Asesoramiento profesional • Reformas integrales
Certificados de garantía

www.irastorza.com
Artike Bidea 31, Bermeo | 94 688 33 01

# MADERAS ARANTZARI

**COMPRA DE MADERA DE EUCALIPTO**

Oficina: 613 76 46 14 - 613 73 94 55
Joseba: 630 91 19 17
maderasarantzari@gmail.com.com
Artieda tar Iñigo 8 bajo
48370 Bermeo - Bizkaia

Joseba Gomez Ormaza



BASTA
bar bea

Prantzisko Deuna Kalea, 33, 48370 Bermeo
**Tel.: 651 890 003**

Amalurra

ESTETIKA / ONGIZATEA

Iraide Ormaza Albizu
747 421 793 | kaixo@amalurraestetika.com
Ondarraburu 9 - 48370 Bermeo | @amalurra_estetika



EUSKO LABEL
Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada

HARATEGIA URDAITEGIA
GANADERIA

BASERRI
BERMEO

666 983 629
bizkaikojaurerria, 4

Sollube
Arrandegia

Bermeoko Udal Azoka
✆ 94 688 37 04

# GURE ARRANTZALEEN ARAUAK ETA OHITURAK BERMEOKO PORTUAN

# 2024KO ARRANTZALE EGUNA

IÑAKI GARRO JIMENEZ

«Lamera Gane» txokoak, 2007. urtetik, omenaldiak egiten deutsez gure arrantzaleei, urtero, irailaren 9an. Aurton, mendeetan zehar arrantzaren – gure lehen sektorea– segurtasunari, egonkortasunari eta errentagarritasunari eusteko lanean gogor ibili ziran persona guztiei egin gura deutsegu omenaldia.

Arauak eta legeak: Bermeoko portuak, XX. mendean, 134 enbarkazino eukazan, 22 eta 36 metro arteko luzerakoak (baxurakoak) eta 120 enbarkazino 6 eta 20 metro artekoak (lebazaleak). Itsas Laguntzailetza Militarrak, arrantza-, kabotaje- eta aisia-ontziak kontrolatzeko eta tratatzeko eginkizunak eukazan eta itsasontzi bakotxaren ezaugarriak kontuan hartuta arauak erregulatzen ebazan, esate baterako, langile tituludunak eroatea –makinetakoak eta zubikoak– eta horretarako komandantzia militar bakotxeko ikuskatzaileek azterketak egiten ebezan ziurtagiriak emoteko. Holan, itsasontziak egoera onean egozala ziurtatzen zan eta itsasontzia eta tripulazinoa seguru egoala, euren laneko lekua arriskutsua dala kontuan hartuta: itsasoa. 1992an, aginte militarra kendu eta zibila hasi zan, Merkataritzako Ontzidiaren menpe, Itsas Kapitaintza izenagaz.

## *BERMEOKO KOFRADIAK*

Arrantzaleen kofradiak irabazi-asmo bako eta bertoko entidadeak dira. Euren funtzino nagusia da afiliatuen ahotsa izatea eta euren interes ekonomiko eta sozialak defendidutea.

Bermeoko enbarkazinoen lan guztiak kontrolatzen, ikuskatzen eta arautzen ebazan. Instituzino hori Erdi Aroan sortu zan, eta bere lehenengo ordenantzak 1353koak dira. Bermeon hiru kofradia be egon dirala esaten da: bik salmentarako eskubidea eukien eta euren orientazino politikoagaitik bereizten ziran. Honako hau zan euren estruktura organikoa: presidentea, presidenteordea, idazkaria eta kide batzuk. Estruktura organikoa kideek egiten ebezen batzordeetan izendatzen zan; batzordeetan armadoreak eta tostartekoak egoten ziran.



Presidenterako, normalean baxurako enbarkazino bateko patroia aukeratzen zan, eta presidenteorderako, tostartekoen artean; presidenteak bere enbarkazinoan patroi-lanetan segiduten eban, eta presidenteordea liberatu egiten zan, eta lanaldi osoa egoten zan Kofradian. Ordaina honako hau izaten zan: errolatuta egoan enbarkazinoaren partila gehi lauren bat eta lonjan errematean joaten zan kilo 1 arrainen balioa. 1963an, presidente barria izendatu zanean, kofradian lanaldi osoa emon jakon eta presidenteordeak galdu eban; horrek sektoreko lehenengo grebak ekarri ebazan.

Kofradiak bere lonjan errematean doazen salmenten zenbateko osoaren % 3,5en salmenta-eskubideetatik sortzen dauz bere baliabide ekonomikoak. Diru hori Kofradiak daukan kutxa komun batean sartzen da, eta aktibo hori langileei ordainketak egiteko eta kideek adosten ebezen laguntza arautuetarako erabiltzen zan.

Kofradia bakotxak bere salmenta-eskubideak arautzen ebazan, eta, Bermeoko enbarkazinoek Mediterraneora eginiko lehen urteeretan, ehuneko handiagoak ikusi ebezan. Kofradiak batzorde bat desplazau eban eta, eztabaida batzuen ostean, akordio batera heldu ziran.

Eguraldi txarragaitik edo arrain gitxi atrapatzeagaitik izaten ziran neguko kanpaina latzetan, kofradiak, bere kutxa komunetik, ordainketa bat eta hiru bitartean egiten ebazan, kostera bakotxaren beharrizanak kontuan hartuta. Ganera, kideei dirua be ixten eutsien, «miserikordia» konzeptupean, kostera txarrengaitik euki leikiezan beharrizan ekonomikoak betetzeko.

Alde sozialean be, herriko langile-klasetik nahiko bereizten zan. Kofradiak, laguntzeko, baliaezintasun eta jubilazino konzeptuagaitik kopuru bategaz laguntzen eutsien euren bizitzan, estamentu ofizialetatik jasoten ebenetik aparte. Konzeptu hori indarrean egon zan 1956an Montepíoa heldu zan arte. Pasa dan mendearen hasieran, arrantzaleen kofradiak baldintza berezietan kontratau eban bazkideentzako mediku-aseguru pribadua, IMQ.

## *GURE ARRANTZALEEK ERABILTZEN EBEZEN ZERBITZUAK*

Gure arrantzaleak, euren beharrizanak kontuan hartuta joaten ziran zerbitzuak sortzen: *señeruak* edo itsasoko alkateak, portuko *guardianak, talaieroak,* etab.

***Señerua*** armadorea izaten zan, eta armadoreek eurek aukeratzen eben botazino baten; urtebete egoten zan kargu horretan. Persona batzuk aukeratzen ebezan, baina beti zenbaki bakoitian, bardinketarik ez egoteko gertakari bakotxagaitik egiten ebezan eztabaidetan. Eguraldi txarra egon ezkero eta intereseko beste arrazoirik egon ezkero –herrian egon edo itsasoan arrantzan egon–, itsasora ez urteteko agindua emoteko edo urteera mugatzeko ahalmena eukon. Farol bigaz komunikatzen zan: bat, berdea, begiratzeko zana, iragarki-ohol bategaz, itsasora zer ordutara arte urten ahal zan esateko; bestea, gorria, agindu barririk emon arte itsasora urteteko debekua adierazten ebana. Itsasoan komunikatzeko, ikurrina altxatzen zan enbarkazinoko mastarik altuenean, eta horrek esan gura eban flota osoa portura bueltan doala. Farolak eta iragarki-ohola portuan egozan, ikusteko moduko leku baten. Teknologia barriak heldu ziranean, komunikatzeko sistema horreek aldatu egin ziran. ***Talaieroa*** Matxitxakoko leku estrategiko baten egoan, eta bere lana zan itsasoan igarten eban edozein gorabeheraren, itsas bankuen edo istripuen barri emotea. Antxina, itsas bankurik lokalizatzen ebanean, itsasontziakaz komunikatzeko, sua pizten eban eta, non egozan ikusita, ikusten eban bankuaren lekua esaten eban. Teknologia barriak heldu ziranean, irratiz komunikatzen hasi zan enbarkazinoakaz, gero interesdunagaz komunikatzeko. Portuko ***guardiana*** neguko gauetan egoten zan. Bermeo babes-portu txarra da erresakakaz, eta bere zeregina zan enbarkazinoen segurtasuna jagotea eta, horretarako, eguraldi txarragaz amarreetan egoten ziran aldaketen barri emotea armadoreei. Muturreko egoeretarako, sirena egoan, armadore guztiak jakitun egoteko.

Kofradia izotz-fabrikaren eta ontzitegien esplotazinoaren kargu egiten zan, eta, kosteren hasieran, zozketa bitartez erregulatzen eban zerbitzu horreek zelan

erabili, itsasontzi guztiak egoera bardinean egoteko kostera hasten zanean. Ganera, arrantzarako tresnak horniduteko kooperatiba bat eukan, bere negozioa hobeto errentabilizatzeko.

## *BAXURAKO ENBARKAZINOAK*

Bermeo, XX. mendean, Kantauri itsasoko baxurako porturik garrantzitsuena zan. Harraptutakoa holan banatzen zan: % 45, tripulazinoarentzat eta beste % 55a, armadoreentzat. Makinistak baino ez eukan soldata finkoa, gehi tripulante lez eukan zati proporzionala. Lauren bat be banatzen jaken sukaldariari eta hozkailuko arrainaren estibatzaileari. Gaixotasun-bajak hartzen ziranean, gizarte-segurantzatik jasotzen zana baltzuan edo *monte mayorran* emoten zan, eta harek osorik jasotzen eban tripulatzaile lez jaso behar ebana, tripulatzaile lez eukozan eskubide guztiakaz.

## *ISTRIPU EDO ABERIA BATENGAITIK PORTUAN GELDITZEA*

Enbarkazinoak aberia edo istripu batengaitik portuan gelditzen ziranean, tripulazinoa beste enbarkazino batzuetan banatzen zan. Jasoten eben ordaina aberia eukon enbarkazinoaren baltzuan edo *monte mayorrean* emoten zan, danon artean zati bardinetan banatzeko.

## *LEBAZALEAK*

Kofradia bereko kideak badira be, enbarkazinoaren neurria eta arrantza-modalidadea ezbardina da –lebatza, bisigua eta papardoa urritik ekainera Bizkaiko arrantzalekuetan eta Eskoten (Gipuzkoa), eta tunidoak uztailetik irailera, kaza-modalidadean (*kurrukana*)– eta hainbat ordenantzak arautzen dabez, eta euren ordezkariak aukeratzen dabez asanblada orokorrean; asanblada horretan armadore guztiek eta lebazaleetako tripulatzaileek parte hartzen dabe. Presidentea eta kideen batzordea aukeratzen da, eta langile finkoak daukiez kontu burokratikoak egiteko idazkariaren eta kontugilearen funzinoak betetzeko. Harrapatu dabena eta ordainsariak langileen artean banatzeko orduan, % 50 armadoreen parteari jagoko eta beste % 50a, tripulazinoari, saldutako guztitik. Baltzuko edo *monte mayorreko* gastuak kentzen jakez –% 50 armadoreen partetik eta beste % 50 bat arrantzale-klasearen aldetik– langileen segurtasunaren, jatekoen, oinarrizko aparejuen, *karnada* eta arrantza-ekipoak mantentzeko lanen ordainketei. Arrantzan egiteko erabiltzen dabezan *karnadak* izozteko eta konserbatzeko planta txiki bat daukie. Banaketa Julia Alboniga Telletxeak (Juli

Maison) egiten eban; nagusi lana egin behar eban eta banaketaren ondorioz egoten ziran gorabehera guztiak landu. Askotan, ez zan neskatila askoren gogokoa; gehienetan esaten zan *karnadaren* erruagaitik atrapatzen ebala gitxi bere enbarkazinoak. Euren *señeroak* daukiez; armadoreen artean aukeratzen dira, eta hareek aukeratzeko sistema baxurakoetan modukoa da.

## *ANDRAZKOEN ZEREGINA ARRANTZA MUNDUAN*

Euskal Herriko andrazko tradizionalaren inguruan beti uste izan da etxe inguruan egon dala, eta uste hori ez dator bat Bermeoko andrazkoen bizimoduagaz. Enbarkazinoek lau andrazko be baeukezan janaria erosteko, arrain-kutxak batu eta garbitzeko, bai eta arrainak deskargetan laguntzeko, sareak jagon eta mantentzeko eta beste lan batzuetarako be. Lan gogorrena eta gatxena enbarkazinoan ezbeharren bat egoten zanean egiten eben; gorabehera horren barri etxekoei emotera bialtzen ebezan, eta psikologo-lanak egiten ebezan. Ganera, konserba-fabriketan, sareak konpontzeko lanetan eta beste hainbatetan be egiten eben lan.

**Anton Garai,** Bermeoko Arrantzaleen Kofradiako presidentea 1963tik 1983ra; urte asko egon zan Bizkaiko Kofradien Federazinoan be bai. Hogei urteotan, egitura asko eta Kofradiaren funzionamentu-arau asko modernizau ebazan, beti danen gustura egin ez baeban be. Itsasoko Gizarte Institutuko presidentearen lagun on egin zan, Fontán Lobe almirantearena, eta, haren bitartez, arrantzaleentzako jubiladuen etxea egitea lortu eban, bai eta kreditua be itzoz-fabrika barria egiteko, Nautika eta Arrantzako Eskola egiteko eta laneko istripuen Mutualitatea egokitzeko eta Itsasoko Gizarte Institutua Txibitxaga eremuan errehabilitatzeko.

**Anton Pérez** idazkaria izan zan Bermeoko Arrantzaleen Kofradian, Anton Garai presidente izan zanean. Kofradiaren ordezkari izan ziranean, arrantza munduko akordio asko lortu ebezan. Bere aita zan Julio Antonio Pérez (Motxela) ordezkatu

eban karguan, arrain-*pisadore* hasi zana kofradian eta, gero, mailaz igo eta idazkari-lanetan segidu ebana. Ezaguna da "**ZORTZI PAPARDO**" kantaren letra sortu ebalako; letra hori sortzeko, *pisadore-lanak* euki ebazan gogoan: behean arraina eukan, aurrekaldean itsasoa ikusten eban, itsasontzi asko egozan oraindino heltzeko... Kanta hori Bermeon abesten da ospakizun eta jai askotan

**José Manuel Gabantxo,** Arrantzaleen Kofradiako presidentea 1991tik 1995era.

“Noche de San Juan” arrantza-ontzian izan zan patroia bost urtez. Txikitan, bere aitak eukan tabernan, Luis Goienetxea (Ateka) arrantza-ontzien margozalearen aurrean egoten zan eta haren lanak ikusita, arrantza kontuen inguruko koadroak margotzeko zaletasuna etorri jakon. Egunotara arte, 435 koadro egin dauz guztira; horreetariko asko Bermeoko Arrantzaleen Museoan eta Indautxu Hotelean egon dira ikusteko, eta bere erakusketetan hainbat jente ezagun egon da, esate baterako, María Eugenia Mezo eta Julián Momoito pintorearen semeak, Pablo, Angel eta Alberto. Barruko portuko *aidxenetan* ainguraketa-posteak margotzen parte hartu eban eta antxinako arrantzaleek euren tximinietan erabiltzen ebezen sinboloak kontuan hartuta margotu ebezan. Arrantza kontuak zabal landu ebazan, urte asko emon ebazan-eta profesional eta arrantzale-lanetan.

**Jabier Kareaga Urkijo** 13 urtegaz hasi zan itsasoan lanean, «La Fea» enbarkazinoan. Presidenteordea izan zan 5 urtez Bermeoko Arrantzaleen Kofradian, eta arrantzale urte askoan. Oso irakurzalea eta ekitaldi kultural askotan laguntzailea.



# BERMEON EGOITZ ALAI EGOITZA



Zubiaur tar Kepa, 72 **94-602 98 86**

- ALDI BATERAKO EGONALDIAK (egun solteak, astebete, 15 egun, hilabete...)
- ASTEBURUETAKO EGONALDIAK
- SUSPERALDIAK (ospitaleko altaren ostean)
- JANTOKI ZERBITZUA
- PLAZA PRIBATUAK ETA ALDUNDIAGAZ HITZARTUTAKO PLAZAK



# ORMABARRIETA
BERMEOKO EGUNEKO ZENTROA



Benito Barrueta, 12 **94-602 82 81**
cdormabarrieta@babesten.com

- GARRAIOAREKIN EDO GARRAIORIK GABE (egun solteak, astebete, 15 egun, hilabete...)
- ASTELEHENETIK BARIKURA
- EGONALDIAK GOIZ ETA ARRATSALDEZ EDO EGUN ERDIZ
- JANTOKI ZERBITZUA
- PLAZA PRIBATUAK ETA ALDUNDIAGAZ HITZARTUTAKO PLAZAK
- PROMOZIO TARIFAK





babesten Grupo

Bizkaia foru aldundia diputación foral

**Informatu Bizkaiko beste herri batzuetan eskuragarri dauden plazei buruz**
(Bilbao, Basauri, Muskiz, Abanto, Sestao, Zalla)
En los centros forales gestionados por el Grupo Babesten disponemos de plazas públicas concertadas con la Diputación Foral de Bizkaia, así como plazas privadas de tipo permanente y/o temporal
**GRUPO BABESTEN-en bermearekin**
***www.grupobabesten.eus***
Orientazio Soziosanitarioa
centrosmayores@grupobabesten.eus
**944 21 29 18 / 674 71 94 76**



# AI · MUNDAKA

GOIKO KALEA, 53

619 290 091 | aimundaka@gmail.com

# Geure artien euskeraz eingule?

BERMEOKO UDALA

Euskera Saila

Jai zoriontsuak guztioi



GOIRI HORTZ KLINIKA

ELK. 864

**BAKIO**
Basigoko Bide Nagusia, 10 - 12
Bakio
Tel: 94 619 42 44
Email:
hortzklinikagoiribakio@hotmail.com

**BERMEO**
Zubiaur Tar Kepa 40, Bajo · 48370
Tel: 94 618 65 55
hortzklinikagoiribermeo@hotmail.com

www.hortzklinikagoiri.com

**ZERBITZUAK**

Inplanteak
Endodontzia
Periodontzia
Hezur-birsortzea
Kirurgia orokorra
Hortz-ateratzeak
Protesia
Ortodontzia
Hortzak zuritzea
P.A.D.I.




ITURRI
Ortopedia - Parafarmazia
Jai Zoriontsuak!!
Prantzisko Deuna atea, 13 Bermeo
Tel. 94 612 20 40
ortoiturri@gmail.com


SALÓN
NK
NESKUTZ
Neskutz_ileapaindegia
Neskutz ileapaindegia
94 602 85 66
Trake, bajo
48370, Bermeo - Bizkaia


Busi Modas
ARRESI KALEA, 19
48370 Bermeo (Bizkaia)
94 435 48 43
busimodas@gmail.com


HAMBURGUESERIA
GAI - SAI
GAI-SAI
um, um.... gozo gozo
Arresi kalea, 28.30
Tel. 946 884 998
www.facebook.com/gaisaibermeo
Bermeo

ZABALA
botika
Bermeo

Aristegi
Dentista
Protesiak
Ortodontzia
Inplanteak
Odondotologia orokorra
PADI
Askatasun Bidea, 21 bis-2.A
Tel. 94 602 84 39
Bermeo


DUQUE
Zurgindegi
ZURGINDEGI S.L.
Altzariak neurrira
Sukaldeak, Bainu-gelak
Saloiak, Logelak
Armairu empotratuak
Gremioen arteko
kordinazioa
Landabaso Industrialdea, 2-7 . 17 Partzela (Bermeo)
T. 94 618 60 61 · F. 94 602 85 38
duquezurgindegi@gmail.com

Torrealday
ASESORES CONSULTORES

Helbidea c/ Askatasun, 24 - 2°E
Telefonoa: 946 884 608
BERMEO

ZVBi-GANE
TABERNA
Bokatak, Pintxoak...
Zorionak Danori!!!



Kale Istua, 2
Tel. 94 688 52 54

LUR
INMOBILIARIA LUR
Jai Zoriontsuak
C/ Lope Diaz de Haro, 14 Bajo
94 618 60 58 - 688 647 874
48370 Bermeo
lur@lurbermeo.com

Zaindu zaitez!!!
TAILERRAK GAZTETXU
ZERBITZU OFIZIALA | Servicio oficial
SM
nannidiesel
MERCURY
BOMBAS ITUR
Guascor
Castrol
YANMAR
masson
ZF
Solé Diesel
Aeroquip MANGUERAS
Landabaso Industrialdea 2, 17- 7 BERMEO
Tel. 94 618 70 44
talleresgaztetxu@gmail.com

BODEGAS URIARTE
Edarien banatzailea:
URAK
BATIDOAK
ZUKUAK
MOSTOAK
SAGARDO NATURALAK
GASEOSAK
"DAMM" GARAGARDOAK
ERRIOXA ETA NAFARROAKO ARDOAK
Jai Zoriontsuak dan danori!
P. LANDABASO, A. 4. PARCELA
TEL. 665 702 899 (BERMEO)

ALKARTASUNA DANTZA TALDEA
BERMEO
1976tik
48 Urte Dantzan!

Iraganak bideratuko deusku etorkizuna
Aupa BERMEO!!!!!
Gora EUSKAL HERRIA!!!!!

Bermeotar guztioi
eta kanpotik etorriko zarien guztioi
Jai zoriontsuak
ALKARTASUNA DANTZA TALDEKO
dantzari eta musikarien partez

Irakaskintza kalea, 14-16 | 48370 - Bermeo
(Euskal Herria) | tel. 639 624 331
alkartasunadt@gmail.com | www.alkartasuna.com
@alkartasunadt

Gu zu bio
ONTZIRATU GABEKO PRODUKTUAK • PRODUCTO A GRANEL

Zero Plastiko!

Tlf. 647 294 101
guzubio@gmail.com
Nekazari 7, 48370 Bermeo
@guzubio

BERMEO
PODOKLINIKA
Mari Martín
Kolg. Zbakia 212



94 602 84 33

Trake Kalea, 1
48370 Bermeo

Kp
Publizitatea

Reparto postal y de publicidad
Posta eta publizitate-banaketa



ONDO PASA JAIXETAN!

Erreñezubi 5 · BERMEO
Tfno. 686 91 63 08
Email: kartundupostak@gmail.com

Jon Trejo
ETXEKO MANTENIMIENTU LANAK
Pertsianak · Leihoak
Armairuak · Ateak
Sarrailagintza
☎ 688 859 284
Erreñezubi, 17 · 48370 BERMEO
jtrejoreparaciones@hotmail.com

Inmobiliaria ANDRES
JAI ZORIONTSUAK!!!!!!
Reyes Aransolo - 670 687 474
Rakel Andrés - 652 777 353
Lupe Cortés - 692 938 542
Prantzisko Deuna Enp. 3 behe
48370 Bermeo (Bizkaia)
Tel/Fax: 94 618 69 42
inmoandres1@gmail.com
www.inmoandres.com

Supermercados COVIRAN
C/ Bizkaiko Jaurerria, 5 Bajo

URDAIBAIrentals
Alokairu turistikoaren kudeaketa

IBONE CASTRO
Ile - apaindegia
☎ 94 656 78 21
C/ Ondarraburu 7, bajo b-izq. Bermeo - Bizkaia 48370

ARTZA
Taberna · Jatetxea
Jai Zoriontsuak!
• Eguneko menuak
• Menu bereziak: bariku gauetan & zapatuetan

Askatasun Bidea, 1 Tel. 94 602 93 71 48370 BERMEO Bizkaia

ALTZARIAK & DEKORAZINOA
ARBER
Altzariak • Koltxoi-denda
Oheko erropa • Zure atsedenerako guztia
Muebles • Colchonería
Ropa de cama • Todo para tu descando
Arresi kalea, 38 • Tel. 94 688 07 55 • mueblesarber@hotmail.com • BERMEO
www.mueblesarber.com

KONPON PC
RECOGIDA Y ENTREGA A DOMICILIO
Venta y reparación de equipos informáticos · Asesoramiento
Desarrollo web · Cámara videovigilancia · Redes (LAN, Wifi)
ETXEAN JASO ETA EROAN
Ekipo informatikoen salmenta eta konponketa · Aholkularitza
Web garapena · Bideozaintza-kamera · Sareak (LAN, Wifi)
Arresi kalea, 20 · 48370 BERMEO
TEL. 94 688 06 77
konpon-pc@hotmail.com


Hankatxo
TXAKUR ILE-APAINDEGIA
94 675 73 11
Intxausti 4 bj. Bermeo · 48370 · Bizkaia


BURDINZARRA
Eraikuntza Metalikoak
Egitura Metalikoak · Industria Nabeak
Errementaritza · Tarteko Solairuak
Burdin hesiak · Altzairu herdoilgaitza
e-Maila: burdinzarra@burdinzarra.com
Tel. 94 625 04 23 · Faxa. 94 625 76 30
Txaporta Ind. 1 Zk - 48300 Gernika
616 93 64 11
BENGOZARRA


Espezialistak gara:
Zentralitak birprogramatzen
Mekanika – Elektrizitatea – Karrozeria azkarra
Txapa eta pintura – IAT aurrekoak
Luberri MotorSport
Landabaso Ind. Pol. "B" 7-7ª
48370 Bermeo – Bizkaia
info@luberrimotorsport.es
www.luberrimotorsport.es
Aitor
94 688 15 87 / 691 171 158


1956
maria artea
Jai Zoriontsuak
Etxebarria Tar Kresentzi, 7 • 94 688 09 92 • BERMEO


agirre
BURDINDEGIA
Ainhoa Agirre
Atalde Kalea, 1 - 48370 Bermeo
T. 944 65 53 88 M. 680 37 41 17


Ízaro
· irish pub ·
946 881 112


Karmele
Ile-apaindegia
Ile-Liza penal,
look-aldaketak,
Solarium
Dolariaga Kalea, 27 · Tel. 94 618 78 72 · Bermeo


TALLERES
ESPARRU
EURO REPAR
ELECTRIZITATEA
MEKANIKA - TXAPA - PINTURA
Esparru zeharkalea - Bermeo
talleresesparru@gmail.com
Tel. 94 688 49 00 - 676 966 888

CiD Encimeras S.L.

MARMOL
GRANITO
PORCELANA
COMPACTOS
CORIAN

MARMOLA
GRANITOA
PORTZELANA
KONPAKTUAK
CORIAN

Tel./Fax. 94 685 29 99 info@cidencimeras.com
48370 BERMEO Bizkaia Polígono Landabaso Fase 1 Nave 2

JIU JITSU BRASILDARRA BERMEON

ITXASALDE
BERMEO
BRAZILIAN JIU JITSU



688868223
ITXASALDEBJJ
K/ ZUBIAUR TAR KEPA, 38 - BERMEO (BIZKAIA)

BERMEO consulting

AHOLKULARITZA ZERBITZUAK

Elkano tar Juan Sebastian kalea, 1ª (BERMEO)
Tel.: 94 618 70 30 - faxa: 94 618 71 45

Ercilla 26 ezk. Eskra. 5 erdia (BILBAO)
Tel.: 94 424 67 89 - faxa: 94 424 54 49

www.bermeoconsulting.com
iker@bermeoconsulting.com

Bidebieta
JATETXEA - RESTAURANTE



94 674 06 61 - 94 615 63 47
Bº Emerando, 13 - MEÑAKA - LARRAURI (Bizkaia)
josutg@gmail.com - www.bidebietajatetxea.es

IKAI Hanburgesak Jatetxea
Eupeme Kalea 1B bajo-1 (Bermeo)
Tlf. 688 735 469
Reparto (BERMEO y MUNDAKA)
Síguenos en IKAI - hanburgesak

Leire Ruano Lopez
T +34 637038245
E namaskids23@gmail.com
W namaskids.com
I @namas__kids
D Arresi Kalea 22, bajo
namaskids
oure txikien yoga zentroa

BERMEO OFFSHORE
ERHARDT



# JAI ZORIONTSUAK!

CROSSFIT
XIXILI

## ETORRI ETA PROBATU DOHAINIK

ORDUTEGIA: 6:30-21:00

CROSSFITXIXILI.COM

TEL.: 628 52 66 95

K/ ERRENE ZUBI, 2, BERMEO


GALDU EGINGO DUZU?
EDICIÓN 10 EDIZIOA
IRAILAK 7 DE SEPTIEMBRE
BERMEO-IZARO
Salome CAMPOS
¿TE LO VAS A PERDER?
www.salomecampos.com